

hazia,

hasi eta hazi

IDAZLEA: Pello Uharte Orotz · ILUSTRATZAILEA: Iker Moreno Ibañez



Sortzen-Ikasbatuaz

Jarauta Kalea 32,
Telf. eta Fax: 948 221 380
Iruñea
(Nafarroa-Euskal Herria)

Idazlea: Pello Uharte Orotz
Ilustrazioak: Iker Moreno Ibañez
Maketazioa: Sortzen-Ikasbatuaz

Inprimatzailea: Graficas Iratxe
L.G.: NA-1110-2010

Eskerrak: Berriozarko Mendialdea ikastetxeari
2012ko Euskal Eskola Publiko Berriaren aldeko jaiaren antolatzailea.

Hazia,
HASI ETA HAZI

Antzina zaharrean, herri txiki bateko jendeak ez zuen mingainik ahoan. Ez gizonek, ez emakumeek, ez neskek, ez mutilek, inortxok ere ez. Ezin zuten hitz egin, ezta burla egin ere, noski. Keinuka aritzen ziren erran nahi zutena bertzeei adierazteko. Burla egiteko, berriz, hatz potoloak lokietan jarri, eta eskuak gora eta behera mugitzen zituzten.

Herri hartako jendeak ez zekien zergatik galdu zuten mingaina. Batzuek uste zuten aspaldian erori zitzaizela ilea erortzen den bezala; bertze batzuek, aldiz, pentsatzen zuten ondoko herriko ogro anker batek moztu ziela herri txiki horretako hizkuntza gustatzen ez zitzaiolako.



Udazkeneko egun batean, herri txiki hartara zorrotzaile zahar bat iritsi zen.

Firurirurururiiiiiii, fiririririruuu!!! Firurirurururiiiiiii, fiririririruuu!!!

Aiztoak, aizkorak, nabalak, aihotzak, guraizeak eta ganibetak zorrotzen ditut!

Firurirurururiiiiiii, fiririririruuu!!! Firurirurururiiiiiii, fiririririruuu!!!

Bizikleta zaharra gelditu, gurpilaren azpian burdinazko oinarria ipini, eta zorroztarria prest jarri zuen lanerako.

Deia behin eta berriz errepikatu bazuen ere, ez zen inor joan lanabesak zorroztera. Orduan, negoziarik eginen ez zuela ikusirik, ideia bihurri bat bururatu zitzaion: “Bai! Hurrengoan, mingainak salduko ditut herri txiki honetan!”




Pentsatu eta egin. Hiru egun geroago, berriro azaldu zen zorrotzaile zaharra herrian.

*Firurirurururiiiiiii, firiririruuu!!! Firurirurururiiiiiii, firiririruuu!!!
Merke, merke! Mingainak, mingain berriak, mingain berritsuak!!!! Firurirururu-
riiiiiiii, firiririruuu!!! Firurirurururiiiiiii, firiririruuu!!!*

Bizikletan kutxa beltz handi bat zeukan. Jendeak mingainik ez, baina belarriak bazituen, eta zorrotzailearen mezua argi eta garbi entzun zuen.

- Zenbatean salduko didazu mingain bat?– galdetzen zuten keinuz.
- Zenbatean? Hainbatean.
- Eman bat –eskatzen zioten hatz bat altxatuz.

Zorrotzaileak eskua kutxa beltzean sartu, mingain bat atera, eta hone-laxe erraten zion erosleari:



– Ireki ahoa.

Eta zorrotzaileak mingaina *tak!* jartzen zion zintzuraren aitzinean eta gingilaren azpian.

Herri txiki hartako guztiek mingain bana erosi zioten zorrotzaileari, eta gizon zaharra oso pozik alendu zen herritik bere bizikleta zaharrarekin eta kutxa beltza diruz beterik.



Herriko neska-mutilak algara bizian hasi ziren, elkarri burla egiten zioten mingaina aterata, eta ederki dantzatu zuten mingaina, oihuka eta nork bere erara.



Baina poz hark ez zuen asko iraun. Berehala ohartu ziren mingain bakoitzak hizkuntza diferente bat erabiltzen zuela. Mintzatu bai, denak mintzatzeko ahal ziren; baina ulertu ez. Ezin zioten elkarri deus ere ulertu, hizkuntza ezberdinetan mintzatzeko zirelako.

– Gainera, –erran zuen txineraz-edo herriko emakumerik zaharrenak– erdal hizkuntzak dira guztiak, inork ez dakigu hemengo gure hizkuntza zaharra erabiltzen. Guk geure hizkuntza nahi dugu, ulertzen duguna, maite duguna, mingaina galdu arte herri honek beti erabiltzen zuena.

Neguko egun batean, herrira nor agertuko eta zorrotzailea agertu zen.
Firurirurururiiiiiii, firiririruruuu!!! Firurirurururiiiiiii, firiririruruuu!!!

Herriko jendea haserre eta oihuka hurbildu zitzaion, eta gizon zaharra berehala ohartu zen herritar bakoitzak hizkuntza diferente batez azaltzen ziola bere kexa.



– Lasai, lasai. Ez duzue kexatzeko motibo handirik. Aberatsak zarete, hizkuntza asko dakizkizuelako. Horrelakorik ez da munduko bertze inon gertatzen. Mundu osoan zehar joaten ahal zarete arazorik gabe, eta horrek asko balio du mundu moderno honetan.

– Bai, arrazoi duzu; baina guk gurea nahi dugu. Euskara behar dugu. Guk, munduko bertze herriek bezala, geure hizkuntza nahi dugu. Hau Euskal Herria da! –erran zuen gizon bizardun batek errusieraz.

– Ulertzen dut zuen haserrea –erantzun zuen zorrotzaileak.– Soluzioa badaukat, eta emanen dizuet, lasai; baina ez ezazue pentsa kontu erraza denik. Pazientzia, lana eta adorea beharko dituzue nahi duzuen lortzeko.

Isildu egin ziren guztiak, eta zorrotzaileari begira jarri. Zorrotzaileak bere beroki zaharraren poltsikora sartu zuen eskua, eta itxita atera. Ukabila ireki, eta hazi bitxi batzuk erakutsi zizkien.

– Horrekin engainatu nahi gaituzu? –oihukatu zion polonieraz neska gazte batek.


– Hazi magikoak dira. Arduraz eta kemenez hazten badituzue, egunen batean euskal jakinduria ematen duten fruituak lortuko dituzue.

– Eta euskara berreskuratuko dugu? –galdetu zuen txineraz-edo mintzatzen zen emakume zaharrak.

– Bai, noski. Baina lan handia egin beharko duzue haziak ernetzen, landareak hazten eta zuhaitzak zaintzen, dena ez baita magia. Lanik gabe, fruiturik ez.

– Eta haurrok euskaraz ikasiko dugu? – galdetu zion zorrotzaileari ingeles motelean haur batek, triziklo gainetik.

Jakina. Hazi hauetako batek Sortzen Ikasbatuaz izena du. Urte batzuk barru, Euskal Eskola Publiko Berria sortuko du, eta zu bezalako haur askok euskaraz ikasiko dute.



Eguberriko egun batean, zorrotzaile zaharra agertu zen berriro.

Firurirurururiiiiiii, fiririririruuu!!! Firurirurururiiiiiii, fiririririruuu!!!

Zorrotzaileak aitzurrak, aihotzak, inausteko guraizeak, segak eta zarrakamaldak zorrotzen ditut!

Firurirurururiiiiiii, fiririririruuu!!! Firurirurururiiiiiii, fiririririruuu!!!

Herritarrei haziak ereiten lagundu nahi zien, eta baratzeke lanabesak doan zorrotzu zituen.

Txineraz-edo mintzatzen zen herriko emakumerik zaharrena, errusieraz egiten zuen gizon bizarduna, poloniera zekien neska gaztea, ingeles motelean aritzen zen haurra eta herriko guztiak elkarlanean hasi ziren. Baratzerik onena aukeratu, lurrik egokiena prestatu, ongarria jarri eta haziak erein zituzten. Ureztatzeko, belar txarrak kentzeko eta gainontzeko lanak egiteko, txandak antolatu zituzten.



Egun handi-handia izan zen herrian haziak ernetzen hasi eta landareak lur azalean azaldu zirenean! Ez ziren nolanhiko landareak, gainera. Oso azkar hazi ziren herritarren lanari esker, eta berandu gabe zuhaitz eder bilakatu. Baita fruitu harrigarriak eman ere! Bai gizonak, bai emakumeak, bai neskak, eta baita mutilak ere, herriko den-denak euskaraz mintzatzen hasi ziren. Batzuk gehiago, bertzeak gutxiago; baina guztiak euskaraz bizitzen hasi ziren.



Hori ospatzeko, noski, festa handiak antolatzen zituzten, eta zorrotzaile zaharra gonbidatzen zuten beti.

Festa handi haietako bat urtero ospatzen da oraindik ere, Iruñeko Takoneran. Ez dakigu aurten zorrotzailea etorriko ote den, baina gonbidatuta dago.



*Eta zuri eta berde eta gorri eta firuriruri,
ipuin txiki hau oraintxe bertan c'est fini.*



1512tik euskal curriculumuma landuz
haziak hezten